

INIGO AZKONA



**Rosa Maria Martin Sabaris**

EHUKO IRAKASLEA ♦

## Zoriontsu izateko erabakia

HEDABIDEETAN irakurritakoak eta inguruko lagunek kontatutakoak sorrarazten didan atsekabea gainditzeko asmoak bultzatu nau izenburu hori jartzera. Amaitu da etsipena, akabo orain arte idatzitako esaldi beltzak, akabo kopeta iluntzen didaten lerroak. Jarrera baikorra izatea betebeharrak morala dela uste dut. Baikortasunean tematzea ezinbestekoa zaigu aurrera egin nahi badugu. Kazetarien eginbehar mesianikoetakoak irtenbideak erakustea da. Eta horrela, sekulako sarraskiak eta hondamendiak erakutsi eta gero, jarrera positiboa izan behar dugula esaten digute: langabeziatik ihes egiteko enpresa bat nola sortu, elbarritu eta gero non kirola egin, bikotekidearengandik banatutakoan norekin ibili, edota erakunde publikoen diru laguntzarik gabe nola erabili betiko diru-bilketa, *crowdfundinga* alegia.

Erresilientzia, ezbeharretatik indartuta ateratzeko gaitasuna. Etengabe ari zaizkigu errezetak ematen. Norbanakoen kasuan eta baita jendarteenean ere. Horrela ulertzen ditut Foro Sozialaren 12 gomendioak. Herri honek ezbeharretatik indartuta irteteko abagunea izan behar du, eta gomendio horiek ez dira nahikoa izango, baina ezinbestez eman beharreko pausuak dira.

*Kazetarien eginbehar mesianikoetakoak irtenbideak erakustea da. Eta horrela, sekulako sarraskiak eta hondamendiak erakutsi eta gero, jarrera positiboa izan behar dugula esaten digute*

Makalaldietan, erresilientziari buruzko diskurtsoa boteretsuen koartada hutsa dela pentsatzeko tentazioa daukat. Boteretsuek indartsu nahi duela ikusi boteririk gabea, hori baino ez. Heriotza zigorraren bezperako afaria. Baina, tira, zorionaren bila hasteko agindu diot neure buruari.

Australia omen da herririk zoriontsuena. Hala omen dio Lankidetzeta eta Garapen Ekonomikorako Erakundeak egindako ikerketa batek. Segur aski ekonomia soilean oinarrituta lankidetzan baino gehiago: etxebizitza, diru-sarrerak, enplegua, parte-hartze publikoa, heziketa, ingurugiroa, segurtasuna, aisialdia... horrelako irizpideak hartu dituzte kontutan. Lekutan dago Australia. Rousseau inozoak, aitzitik, herrik zoriontsuena Gernika zela idatzi omen zuen. Lekutan Rousseau ere. Inoiz ikusi ditudan umerik zoriontsuenak Saharako kanpamentuetan ikusi ditut, zinez.

Baikorra izateko erabakia hartuta, zoriontasunaren bila jarraitu dut. Eta hara non topatu dudana: Zoriontasunaren Institutua. Torlojuen herdoila bezala arazoak desagerrarazten dituen formula. Zoriontasunaren Coca-Cola Institutuak (*The Coca-Cola Company*) erregistratutako marka. ■



DANI BLANCO



**Amets Arzallus**

♦

BERTSOLARIA

## Esanahia

IRAULTZA guziak hiztegitik hasten direla ez da nik asmatua. Hitzen jabetza duenak dominatzen duela mundua ez da nik asmatua. Batailarik handienak semantikoak direla ez da nik asmatua. Adibide bat nahi duenak hor du terrorista hitza. Orain arteko guzia ez da nik asmatua. Hitzek beti badute jaberena bat, eta ideia gehienek ere bai.

Hemendik aurrerakoak nik asmatuak dira, baina jabetzeko inolako asmorik gabe; terrorista hitza atzeman zuenak, eta Guantanamo eraman, mundua besapean hartu zuela, adibidez.

Erdaraz “*sens*” esaten da, edo esan daiteke “*definition*”, baina euskaraz esanahia diogu. Eta, ez idurian, horrek zerbait esan nahi du. Esan nahi duenak esan ezin duela du esan nahi. Hitzen esanahiak esan nahi duena da hitzak ez direla libre, bat edo batek preso dauzkala, antzaldatu egin dituela, totalka mintzo direla, ezin dutela. Euskarak salatua uzten du mundu honetako hitzen zentzugabekeria, bere hitzen esanahiarekin, eta bere esanahia hitzarekin. ■

